

2538/2025 EBAZPENA, urriaren 17koa, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Pediatria (Zainketa Intentsiboen Unitatea) Atal Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera onartzen diren.

AURREKARIAK:

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerentearen maiatzaren 23ko 1199/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Pediatria (Zainketa Intentsiboen Unitatea) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko ekainaren 13ko EHAA 111 zk. eta 2025eko ekainaren 23ko BOE 150 zk.).

Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2025eko uztailaren 14an amaitu zen.

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerentearen uztailaren 15eko 1685/2025 Ebazpenaren bidez, prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartu zen.

Horiek horrela, ebazpen honen bidez, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen izendapena argitaratzen dira.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Deialdian ezarritakoaren arabera, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendari erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertze arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko.

Era berean, Balorazio Batzordearen izendapena argitara emateko aginduko du.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Pediatria (Zainketa Intentsiboen Unitatea) Atal Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.- Balorzio Batzordearen osaera onartzea. (II. eranskina)

Hirugarrena.- Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Laugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiari, hilabeteko epean, Ebazpena argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Barakaldo, 2025eko urriaren 17a



EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES ESI
OSI EZKERRALDEA-ENKARTERRI-CRUCES
GERENCIA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako zuzendari gerentea,
Maria Luz Marques Gonzalez

I ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

PEDIATRIA (ZAINKETA INTENTSIBOEN UNITATEA) ATALBURUA

BEHIN BETIKO ZERRENDAK

Onartuak:

D^a. Yolanda Margarita López Fernández and.

Baztertuak:

Inor ez

II. ERANSKINA

Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESI

**PEDIATRIA (ZAINKETA INTENTSIBOEN UNITATEA)
ATAL SANITARIOKO BURUA**

BALORAZIO BATZORDEA

Batzordeburua.

Titularra: Maria Irama Villar Gomez and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko zuzendari medikoa).

Ordezkoa: Alejandra Gil Molet and. (Bibao-Basurtu ESIko zuzendari medikoa).

Lehenengo batzordekidea.

Titularra: Maider Garmendia Zallo and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zerbitzu medikoetako zuzendariorde medikoa).

Ordezkoa: Ainhoa Epalza Bueno (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Zerbitzu kirurgikoetako Zuzendariorde medikoa).

Bigarren batzordekidea

Titularra: Itziar Astigarraga Aguirre and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Medikuntza pediatrikoko Zerbitziburua).

Ordezkoa: Francisco Javier Benito Fernández jn. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko pediatriako larrialdietako Zerbitziburua).

Hirugarren batzordekidea

Titularra: Itxaso Rica Echevarria and. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Medikuntza pediatrikoko Atalburua).

Ordezkoa: Miguel Angel Vazquez Ronco. (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzeta ESIko Medikuntza pediatrikoko Atalburua).

Laugarren batzordekidea (IVAPek proposatutakoa)

Titularra: Joseba Iñaki Rementeria Radigales jn. (Bilbao-Basurto ESIko pediatriako Atalburua).

Ordezkoa: Ainhoa Aguirre Conde and. (Bilbao-Basurto pediatria neonatologiako Atalburua).

Idazkaria:

Titularra: Esther Olaetxea Urizar and. (Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Pertsonaleko zuzendariordea).

Ordezkoa: Ainhoa Gómez Elorrieta and. (Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Pertsonaleko zuzendaria).

Plaza de Cruces, 12 - 48903 BARAKALDO (Bizkaia)

Tel. 94 600 6000